

3seuskadi

EUSKADIKO, KATALUNIAKO ETA ESPAINIAKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA: ALDERAKETA

2022



3seuskadi

Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

3seuskadi

Egilea: Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia.

EAEko administrazio orokorraren tresna tekniko bat da Behatokia, gizarte-zerbitzuen inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren mendekoa. Informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea eta sortzea da Behatokiaren ardura, baita informazio eta ezagutza hori Hirugarren Sektorre Sozialarekin lotutako eremuetan eta bertako erakunde eta sareetan hedatzea ere (Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 25.1. artikulua).



Behatokiaren argitalpen guztiak kontsultatzeko eta dohainik deskargatzeko aukera dago Behatokiaren webgunean (www.3seuskadi.eus) eta <https://ikusmirak.eus/> webgunean.

Argitalpen horien bidez, hirugarren sektorre soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haiek banatzea, kopiatzea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



Aurkibidea

1. SARRERA	2
2. ALDERDI METODOLOGIKOAK	4
3. HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN ERREALITATEA: ADIERAZLEAK, AZTERGAIAREN ARABERA	9
NORTASUNA ETA ZIFRA NAGUSIAK	10
JARDUERA	14
PERTSONAK	16
BALIABIDE EKONOMIKOAK	20
KUDEAKETA- ETA KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK	24
KANPO HARREMANAK	28
HARREMANAK ETA SEKTOREAREN EGOERA	30
4. BIBLIOGRAFIA	32

1. SARRERA

Hirugarren Sektorre Sozialaren edo Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorrearen gaineko azterlanak eta diagnostikoak funtsezko elementuak dira sektorrearen nortasuna eta ezaugarriak ulertzeko, haren jarduera eta ekarpen soziala bistartzeko, eta haren aitopena sustatzeko. Sektorrea osatzen duten erakundeen egoera eta errealtatea ezagutzeko aukera ematen diguten argazkiak dira.

Azken urteetan zehar eta, bereziki, azken hamarkadan, ezagutza hori zabaltzen lagundu duten azterlanak egin dira. Horiek, haien errealtatea herritarren eta beste eragile sozial batzuen artean ezagutzera emateko ere balio izan dute. Azterlan horietako batzuk alderdi edo azpisektore jakin batzuetan egon dira zentratuta, hala nola boluntarioria, desgaitasunaren arloa, bazterketa, etab. Baina azterlan orokorrak ere egin dira, sektorre osoaren hedadura ezagutzera eta erakundeen ezaugarrien gaineko informazio diagnostikoa biltzera bideratuak, baita ekarpen sozialaren gaineko datu kuantitatiboak zein kualitatiboak biltzera bideratuak ere.

Hain zuzen ere, lan horietako batzuk sendotu egin dira eta, gaur egun, erreferente garrantzitsuak dira, epe luzean jarraitzeko bokazioa dutenak. Azterlan horiek, neurri handi batean, sektorreko erakundeen artean nortasun partekatua sustatzen laguntzen dute, eta aldi behin datuak ematen dituzte sektorreak lurralde jakin batean duen bilakaerari behatzeko. Gero eta ahalegin handiagoa egiten da analisia unitate geografiko txikiagoetan oinarritzeko, hala nola probintzietan, eskualdeetan, etab. Hurbileneko inguruneei buruzko datuak ematea da helburua. Hori dela eta, paper garrantzitsua dute ezagutza eskaintzeko orduan, sektorrea osatzen duten erakunde anitzen sustapen-estrategiak identifikatzeko eta haien papera ezagutzeko.

Ez dago Hirugarren Sektorrea¹ ulertzeko eta zehazteko modu bakar eta adostu bat. Ondorioz, ikerketek askotariko definizioak hartzen dituzte, eta beti ez dituzte erakunde berberak hartzen aintzat. Ikuspegi aniztasunak errealtatearen analisi orokorra aberasten badu ere, abiapuntu eta irizpide ezberdinak izateak mugatu egiten du, neurri batean, lanak elkarren artean alderatu ahal izatea. Hala, sektorreari buruzko ikerketak orain arte izan duen gabeziarik nabarmenenetako bat izan dira azterlan konparatiboak.

Aurrez, 2017an, Hirugarren Sektorreko azterlan konparatiboei laguntzeko helburuz, Bizkaiko Hirugarren Sektorrearen Behatokiak txosten bat argitaratu zuen, hainbat lurralde eremutako mota horretako azterlanak alderatzen zituena (orokorra, informazio diagnostikoarekin eta dinamikoarekin)². Zehazki, 2006az geroztik sektorreari buruzko ikerketa mota horietan ibilbide nabarmena zuten hiru lurralde eremuetan (Espainia, Katalunia eta Euskadi) erreferentzia argiak eta aitortuak ziren lanak hartu zituen aintzat.

Txosten honek lan ildo bera jarraitu nahi du, eta informazio eguneratua eskaini nahi du Hirugarren Sektorre Sozialak oro har biltzen dituen errealtateak ezagutzeko eta alderatzeko. Espainiak, Kataluniak eta Euskadik erreferentziazko lurralde eremuak izaten jarraitzen dute azterlan orokorretan. Eremu horietan, aldizkako informazio

¹Kontzeptua hondar-definizioaren ezaugarriek mugatu izanak (Hirugarren Sektorrea, sektorre publikoa –lehen sektorrea– eta irabazi-asmoko sektorrea –bigarren sektorrea– ez den guztizat hartuta) eragin handia izan du zehazgabetasunean. Ez dago honako kontzeptu hauei buruzko definizio bakar bat: ekonomia soziala, hirugarren sektorrea, irabazi-asmorik gabeko sektorrea, Hirugarren Sektorre Soziala, Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorrea... Eta fenomenora hurbiltzeko eta hari behatzeko askotariko moduak islatzen dituzte definizio ugariak.

² Bizkaiko Hirugarren Sektorrearen Behatokiak aurrez egindako antzeko lanak ere kontsulta daitezke, honako esteka honetan: <https://3seuskadi.eus/zer-egiten-dugu/hirugarren-sektorearen-diagnostikoa/hirugarren-sektoreko-diagnostikoen-alderaketa-euskadin-katalunian-eta-espainian/?lang=eu>

diagnostikoa izaten dute, eta horrek erraztu egiten du horien analisi konparatiboa egitea³. Hori dela eta, Hirugarren Sektorre Sozialaren gaineko ikerketarekin lotuta lurralde eremu horietan ibilbide nabarmena duten lanak kontuan hartzea erabaki da. Aipatutako lurralde eremuetako bakoitzean argitaratutako lanik eguneratuenak hartzen ditu erreferentziatzat 2022ko azken txosten konparatibo honek.

Zehazki:

- EAEn honako hauek hartu dira erreferentzia gisa: *Hirugarren Sektorre Sozialaren diagnostikoa Bizkaian 2010 eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialerako Liburu Zuria 2015*, Bizkaiko Hirugarren Sektorreko Behatokiak argitaratuak; eta *Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Liburu Zuria 2020*, Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokiak argitaratuak.
- Katalunian honako hauek hartu dira erreferentzia gisa: Kataluniako Taula d'Entitats del Tercer Sector Social de Catalunya argitaratutako *2015, 2016 eta 2018ko Kataluniako Hirugarren Sektorre Sozialerako Barometroak*⁴. Espainian honako hauek hartu dira erreferentzia gisa: *Espainiako Ekintza Sozialerako Hirugarren Sektorrearen Urtekaria 2010*, Luis Vives Fundazioak argitaratuak; eta *Ekintza Sozialerako Hirugarren Sektorre 2015ean eta 2019an*, Ekintza Sozialerako Hirugarren Sektorrearen plataformak argitaratuak.

Diagnostikoetatik eratorritako emaitzak alderatzeak ezaugarri komunak identifikatzeko modua ematen du, eta lurralde eremuen arteko erronka komunak identifikatzea errazten du. Gainera, analisi konparatiboan lurralde eremu bakoitzeko denbora-erreferentziak sartzeak aukera ematen du lurralde eremu bakoitzeko analisi kronologikoa egiteko eta eremuetako joeren arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak ikusteko.

Txostenaren lehen zatian, lan honetarako datu-iturri gisa erabilitako azterlanen zerrenda bat eskaintzen da, eta horien arteko antzekotasun eta ezberdintasun metodologiko batzuk aipatzen dira, ondoren aurkeztuko den analisi konparatiboa testuinguruan kokatzeko.

Bigarrenik, sektorreko ezaugarriak deskribatzeko orduan garrantzitsuenak iruditu zaizkigun adierazleen sorta bat jasotzen duten taula batzuk ageri dira (datuen analisi konparatiboa errazteko helburuz diseinatuak). Adierazle bakoitzaren kasuan, eskuragarri dauden datuak eskaintzen dira, aipatutako iturrien arabera.

Adierazleak 7 ataletan multzokatzen dira, eta atal horiek bat datoz 2020ko Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialerako Liburu Zuriaren (Euskadiko erreferentziatzko azken lana) kapituluekin edo aztergaiekin: 1) Nortasuna eta zifra nagusiak; 2) Jarduera; 3) Pertsonak; 4) Baliabide ekonomikoak; 5) Kudeaketa- eta komunikazio-estrategiak; 6) Kanpo-harremanak, eta 7) Sektorreko harremanak eta egoera. Aipatu beharrekoa da adierazle bera atal batean baino gehiagotan ager daitekeela, hainbat atalek islatu nahi duten errealitatea deskribatzeko erabilgarria dela iruditu zaigunean.

Honako taula honek modu sintetikoan erakusten ditu analisiaren aztergaiak eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialerako Liburu Zuriaren aztergai bakoitzarekin lotuta identifikatutako erronkak; horretarako, datu kuantitatiboetan eta diagnostikoan zehar egindako kontrasterako lan kualitatiboetan oinarritzen da. 12 erronka identifikatu dira Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialerako. Horietako batzuk hirugarren sektorre sozialaren erronkak dira, eremu geografikoa aintzat hartu gabe, eta proposatzen diren

³ Aipatu beharrekoa da beste lurralde eremu batzuetan ere ahaleginak egiten ari direla hirugarren sektorre sozialari buruzko txosten diagnostikoak eraikitzen eta finkatzen joateko. Adibidez, Andaluzian edo Gaztela eta Leonen. Halaber, Alcalako Unibertsitateko PECOTSAS proiektuak ikuspegi konparatutik aztertu ditu ekintza sozialerako hirugarren sektorrearen garapena eta ezaugarriak, hainbat autonomia-erkidegotan. Esteka honetan kontsulta daiteke horri buruzko informazio gehiago: <https://pecotsas.web.uah.es/wp/proyecto-pecotsas/>

⁴ Aurreko txosten konparatiboetan, esaterako, 2017koan, kontuan hartzen ziren Observatori del Tercer Sector de Catalunya erakundearen lanak ere (Liburu Zuria eta Urtekaria), baina 2013az geroztik ez da argitaratu diagnostiko eguneraturik. Hortaz, txosten honetan ez sartzea erabaki dugu. Horren ordez, Taula d'Entitats del Tercer Sector Social de Catalunya erakundearen ondoz ondoko barometroetan eskaintzen diren datuak erabili ditugu Kataluniaren kasuan. Txosten horiek berriagoak diren arren, arinak eta sintetikoak dira, eta datu eta alderdi garrantzitsuenetan bakarrik zentratzen dira. Hori dela eta, ez dute informaziorik adierazle edo aztergai batzuen kasuan; esaterako, kudeaketa-tresnen, kanpo-harremanen eta sektorreko harremanen kasuan.

garapen-ildo posibleak eta desafioak azaltzen dituzte. Gainera, erronka horien eta indarrean dagoen Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiaren arloen arteko erlazioa erakusten da. Izan ere, Euskadi mailan erreferentziatzeko den araudi esparruko elementu nagusietako bat da.

1. taula. Aztergaien eta Euskadiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zurian identifikatutako erronken laburpen-taula.

AZTERTUTAKO ALDERDIAK	2020KO LIBURU ZURIKO ERRONKAK	INDARREAN DAGOEN HSSSE-REN ARLOAK
NORTASUNA	1. ERRONKA: Sektoreko aniztasunaren aberastasuna mantentzea. Eta, horretarako, sektorearen ezaugarria den atomizazioa aintzat hartzea, errealitate sozialarekiko eta lurraldearekiko gertutasuna ematen duen elementua delako, eta ezberdinen arteko aliantzak sortzeko aukera delako.	9.IDENTITATEA 3. EHSS EGITURATZEA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA
	2. ERRONKA: Parte izatearen sentimendua indartzea, ibilbide luzea duten erakundeen artean zein berriagoetan, eta, horretarako, bereziki, azken horiek sektorean txertatzeko eta integrazteko lan egitea.	9.IDENTITATEA 3. EHSS EGITURATZEA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA.
JARDUERA	3. ERRONKA: Zerbitzuak hornitzeko orduan sektorearen logika propioak mantentzea, beste logika batzuen aurrean, eta, hala, komunitatea, bizi-kalitatea eta pertsonen autonomia helburu duten esku-hartze ereduak sustatzea.	9.IDENTITATEA
	4. ERRONKA: Eraldaketara bideratuta ikuspegia eta funtzioen oreka mantentzea, eta, horretarako, erakundeek gizartean eragiteko duten gaitasuna indartu eta zerbitzurik ematen ez duten erakundeen aitortza, indartzea eta sustapena gehiago sustatzea.	9.IDENTITATEA
PERTSONAK	5. ERRONKA: Erakundeen jasangarritasun sozialean aurrera egitea eta, horretarako, gizartearen parte-hartzeko moduak izandako aldaketak ulertu eta modu berriak txertatzea, erakundeen barruan eta haien oinarri sozialean belaunaldien arteko erreleboa egitea eta herritarrekin harremana izateko modu berriak edo ezberdinak txertatzea.	1. ERAKUNDEETAKO OINARRI SOZIALA ETA PARTE HARTZEA GARATZEA
	6. ERRONKA: Zaintza erdigunean jartzearen eta talentua erakartzearen aldeko apustua egitea, eta, horretarako, enpleguaren kalitatea eta zerbitzuen eta profesionalen egonkortasuna bermatuko dituen lan esparru bat sortzea.	4. JASANGARRITASUNA, AUTONOMIA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA
BALIABIDE EKONOMIKOAK	7. ERRONKA: Erakundeen jasangarritasun ekonomikoaren bidean aurrera egitea eta, horretarako, batez ere, erakunde txikiei eta ertainei laguntzea, eta finantziazio-iturriak dibertsifikatzen jarraitzea.	4. JASANGARRITASUNA, AUTONOMIA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA 5. INBERTSIOAK ETA AZPIEGITURAK
KUDEAKETARAKO ETA KOMUNIKAZIORAKO TRESNAK	8. ERRONKA: Koherentzia mantentzea erakundearen jardueraren eta misioaren artean, misioaren betetze maila ebaluatzea, eta sektorearen elementu eta balio propioak neurtzeko edo ebaluatzeko tresnak sortzeko lan egitea.	2. ERAKUNDEA ETA KUDEAKETA INDARTZEA
	9. ERRONKA: Erakundeetan eraldaketa digitalaren aldeko apustua egitea eta komunikazioa hobetzeko estrategiak garatzen jarraitzea, erakundeen kapital soziala mantentzea eta handitzea ahalbidetuko dutenak.	4. JASANGARRITASUNA, AUTONOMIA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA 2. ERAKUNDEA ETA KUDEAKETA INDARTZEA
KANPO HARREMANAK	10. ERRONKA: Beste eragile sozial batzuekiko harremanean jarrera irekia eta proaktiboa izatea, eta harremanetarako eta elkarlanerako sare zabal, anitz eta arina sortzeko gai izatea.	6. ELKARLANA SEKTORE PUBLIKOAREKIN 7. ELKARLANA ENPRESEKIN 8. EHSS-REN SUSTAPENA, FISKALITATEA ETA AITORTZA
SEKTOREKO HARREMANAK	11. ERRONKA: Erakundeek sareetan eta sareek sektorearen egituratze-prozesuetan duten parte-hartzea sustatzen jarraitzea.	3. EHSS EGITURATZEA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA.
	12. ERRONKA: Eragile sozial gisa posizionamendu nabarmena bilatzea, gero eta konplexuagoa den mundu honetan eragiteko eta eraldaketa sozialeko prozesuak sustatzeko.	8. EHSS-REN SUSTAPENA, FISKALITATEA ETA AITORTZA

2. ALDERDI METODOLOGIKOAK

Aurrez aipatu dugun moduan, denboran zehar hainbat lurralde eremutako Hirugarren Sektorre Sozialaren datuak alderatzen jarraitzea da proiektu honen helburua. Horretarako, aukera handienak eskaintzen dituzten eta eskuragarri dauden iturriak aukeratu ditugu.

Dena den, kontuan izan behar dira hainbat muga, honakoekin lotuta:

- Iturriek aintzat hartzen dituzten Hirugarren Sektorre Sozialaren definizioak antzekoak diren arren, ez dira beti guztiz berdinak izaten.
- Iturri batzuk informazioa biltzeko tresnak aldatzen joan dira denboran zehar. Ondorioz, bilakaeraren datuak ez daude eskuragarri adierazle guztien kasuan.

Nabarmentzekoa da Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialak barne hartzen dituen erakundeen definizio zehatza ezartzen duela Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak.

- legezko egitura eta izaera juridikoa duten erakundeak, haien figura juridikoari dagokion erregistroan inskribatuak;
- ekintza boluntariokoak, irabazi-asmorik gabekoak, pribatuak, autogobernatuak eta autogestionatuak;
- egoitza eta jarduera Euskadin dituztenak;
- honakoak sustatzea dute helburu nagusi: inklusio soziala, garapenerako lankidetzeta eta zaugarritasun-, bazterkeria-, babesgabetasun- eta mendekotasun-egoeretan dauden pertsonen, familien, kolektiboen edo komunitateen eskubideak modu eraginkorrean egikaritzea;
- esku-hartze sozialeko jardueren bidez, hala nola gizarte-zerbitzuak, enplegurako sarbidearen sustapena eta gizarteratzea sustatzeko beste edozein jarduera, esaterako, arloen, politiken eta sistemen arteko interakzio-espazioetan (gizartea eta lan arloa, gizartea eta bizitoki arloa, gizartea eta hezkuntza arloa, gizartea eta osasun arloa, gizartea eta arlo judiziala, gizartea eta kultur arloa, edo beste batzuk) helburu horrekin garatutako jarduerak.

Definizio hori ezartzen eta jasotzen dute Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokiaren txostenek eta azterlanek. Eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren definizio operatiboa hartan oinarritzen da⁵.

Txosten konparatibo hau egiteko, zehazki, 9 argitalpenekin lan egin dugu: EAEko 3, Kataluniako 3 eta Estatu mailako beste 3. Aztertutako lan bakoitzaren alderdi metodologikoen alderaketa xehea jasotzen du honako taula honek. Horrek aukera ematen du alderaketak testuinguruan kokatzeko, eta antzekotasunak eta ezberdintasunak nabarmentzeko.

⁵ Honako esteka honetan kontsulta daiteke 2020ko EHSSren Liburu Zurian erabilitako Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren definizio operatiboaren dokumentua: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/Definici%C3%B3n_operativa_2019_eus.pdf

2. taula. Euskadin egindako txostenen alderdi metodologiko nagusien laburpen-taula.

Iturria-Erreferentziako lana	Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialaren diagnostikoa	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Liburu Zuria	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Liburu Zuria
Azterlanaz arduratu den entitatea edo erakundea	Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia	Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia	Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia
Azken argitalpen-urtea	2012	2015	2020
Datuen erreferentziako lurralde eremua	Bizkaia	EAE	EAE
Datu orokorren erreferentziako urtea	2010	2014	2019
Datu ekonomikoen erreferentziako urtea	2009	2013	2018
Ikergaia	Hirugarren Sektore Soziala	Hirugarren Sektore Soziala	Hirugarren Sektore Soziala
Ikergaiaren definizioa	Hirugarren Sektore Soziala honela ulertzen dugu: pertsonen gizarteratzea eta sustapena erdietsi nahi duten hirugarren sektoreko erakundeek osatutakoa. Horretarako, "arlotan, sistema eta politika sozialekin" zerikusia duten jarduerak garatzen dituzte, gizarte-eskubideen gauzatze eraginkorra ahalbidetzeraz eta pertsonak ongizate sozialera txertatzera bideratuta, bazterkeria- edo zaurgarritasun-egoerei aurre egin behar dietenei arreta berezia jarriz.	Hirugarren Sektore Soziala honela ulertzen dugu: gizarte zibileko erakundeak, egonkortuak, aktibo daudenak, kudeaketa-autonomia eta independentzia dutenak, irabazi-asmorik gabekoak eta orokorrean, boluntarioz osatuak; beren jarduera lurralde jakin batean eta lurralde horretatik garatzen dutenak; inklusio soziala eta zaurgarritasun-, bazterkeria-, babesgabatasun-, desgaitasun- eta/edo mendekotasun-egoerak jasaten dituzten pertsonen, familien, kolektiboaren eta komunitateen eskubideen benetako egikaritzea sustatzea helburu nagusizat dutenak.	Hirugarren Sektore Soziala honela ulertzen dugu: legezko egitura eta izaera juridikoa duten erakundeak, haien figura juridikoari dagokion erregistroan inskribatuak; ekintza boluntarioak, irabazi-asmorik gabekoak, pribatuak, autogobernatuak eta autogestionatuak; egoitza eta jarduera Euskadin dituztenak; inklusio soziala, garapenerako lankidetzaz eta zaurgarritasun-, bazterkeria-, babesgabatasun- eta mendekotasun-egoeretan dauden pertsonen, familien, kolektiboaren edo komunitateen eskubideak modu eraginkorrean egikaritzea helburu nagusizat dutenak.
Ikergaiaren mugatze operatiboa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez ditu barne hartzen garapenerako nazioarteko lankidetzaz, aisialdia eta giza eskubideak. Barne hartzen ditu emakumeen, etorkinen eta adinekoen erakundeak, edo zeharkako ikuspegia izan dezaketen desgaitasunaren eta osasunaren arlokoak. Hortaz, ekintza sozialaren esanahi hertsiaz harago doa. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez ditu barne hartzen kooperatibak, ekintza sozialean aritzen badira ere, baldin eta gizarte ekimeneko kooperatibak ez badira. ▪ Barne hartzen ditu laneratzeko enpresak eta enplegurako zentro bereziak, baldin eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen mendekoak badira. ▪ Barne hartzen ditu entitate singularrak: Caritas, Gurutze Gorria eta ONCE. ▪ Barne hartzen ditu garapenerako nazioarteko lankidetzaz eta aisialdia. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez ditu barne hartzen kooperatibak, ekintza sozialean aritzen badira ere, baldin eta gizarte ekimeneko kooperatibak ez badira. ▪ Barne hartzen ditu laneratzeko enpresak eta enplegurako zentro bereziak, baldin eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen mendekoak badira. ▪ Barne hartzen ditu entitate singularrak: Caritas, Gurutze Gorria eta ONCE. ▪ Barne hartzen ditu garapenerako nazioarteko lankidetzaz eta aisialdia.
Beste ohar batzuk	<p>Urte berean argitaratutako urtekariaren separata bat da lan hau, eta haren laginaren parte bat hartzen du erreferentziatutakoa. Dena den, laginaren zati hori ezin da adierazgarritzat jo eta, hortaz, datuak tentuz aztertu behar dira.</p>	<p>Orokorrean, arlo hauek hartzen dituzte barne: Gizarte Zerbitzuak, Osasuna, Enplegua eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz. Eta arlo hauen zati bat: Aisialdia (aisialdi hezitzaileko taldeak), sozial-transbertsala (emakumeak, etorkinak, adinekoak, gutxiengo etnikoak, familiak eta beste batzuk) eta giza eskubideak (zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboekin lotutako erakundeak, hala nola presoekin).</p> <p>Orokorrean, kanpoan uzten dituzte arlo hauek: kirola, kultura eta ingurumena. Eta arlo hauen zati bat: aisialdia (gazte-taldeak), eremu zibikoa (bizilagunen elkarteak) eta giza eskubideak (zaurgarritasun-, bazterkeria-, mendekotasun-, babesgabatasun- eta/edo desgaitasun-egoeran dauden kolektiboekin espesifikoki zuzenduta ez dauden egitasmoak).</p>	<p>Orokorrean, arlo hauek hartzen dituzte barne: Gizarte Zerbitzuak, Osasuna, Enplegua eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz. Eta arlo hauen zati bat: Aisialdia (aisialdi hezitzaileko taldeak), sozial-transbertsala (emakumeak, etorkinak, adinekoak, gutxiengo etnikoak, familiak eta beste batzuk) eta giza eskubideak (zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboekin lotutako erakundeak, hala nola presoekin).</p> <p>Ez ditu barne hartzen aurrezki-kutxen gizarte-ekintzak. Ez ditu barne hartzen legezko aginduz funtzio publiko jakin batzuk garatu behar dituzten erakundeak (zuzenbide publikoko eta oinarri pribatuko korporazioak), hala nola langileen elkargoak edo merkataritza-ganberak.</p> <p>Oro har, ez dira barne hartzen jarduera nagusia kirolarekin, kulturarekin eta ingurumenarekin lotuta duten erakundeak.</p>

3. taula. Katalunian egindako txostenen alderdi metodologiko nagusien laburpen-taula.

Iturria-Erreferentziako lana	Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa	Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa	Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa
Azterlanaz arduratu den entitatea edo erakundea	Taula d'entitats del Tercer Sector Social de Catalunya	Taula d'entitats del Tercer Sector Social de Catalunya	Taula d'entitats del Tercer Sector Social de Catalunya
Azken argitalpen-urtea	2015	2016	2018
Datuen erreferentziako lurralde eremua	Katalunia	Katalunia	Katalunia
Datu orokorren erreferentziako urtea	2015	2016	2018
Datu ekonomikoen erreferentziako urtea	2014	2015	2016
Ikergaia	Hirugarren Sektore Soziala	Hirugarren Sektore Soziala	Hirugarren Sektore Soziala
Ikergaiaren definizioa	Irabazi-asmorik gabeko erakunde sozialek hainbat forma juridiko izan ditzakete: elkarateak, fundazioak, gizarte-ekimeneko kooperatibak eta laneratze-enpresak. Eta askotariko kolektiboen eskubide sozialak aintzat hartzen eta defendatzen dituzte: haurrak eta familiak; gazteak; etorkinak; adinekoak; desgaitasun psikikoa, fisikoa eta sentsoriala duten pertsonak; drogaren mendekoak; lanpostu bat eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonak; etxerik gabeko pertsonak, etab.	Aurrekoarekiko aldaketarik gabe.	Aurrekoarekiko aldaketarik gabe.
Ikergaiaren mugatze operatiboa			
Beste ohar batzuk	Taula d'entitats del Tercer Sector Socialeko federazioetako kideak diren entitate guztiek, "mapa d'entitats socials de Catalunya" izenekoan erroldatuta daudenek, osatzen dute ikergaia.		

4. taula. Espainian egindako txostenen alderdi metodologiko nagusien laburpen-etaula.

Iturria-Erreferentziako lana	Espainiako Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorearen Urtekarria	Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorea 2015ean	Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorea 2019an
Azterlanaz arduratu den entitatea edo erakundea	Luis Vives Fundazioa eta EDIS.	Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorearen Plataforma	Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorearen Plataforma
Azken argitalpen-urtea	2012	2016	2019
Datuen erreferentziako lurralde eremua	Espainia	Espainia	Espainia
Datu orokorren erreferentziako urtea	2010	2013/ 2015	2018/ 2019
Datu ekonomikoaren erreferentziako urtea	2009	2013	2018
Ikergaia	Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorea	Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorea	Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorea
Ikergaiaren definizioa	Honela ulertzen dugu Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorea: izaera boluntarioa duten eta irabazi-asmorik ez duten erakundeek osatutako eremua; hiritarren ekimen asketik sortuak dira erakunde horiek, modu autonomoan eta solidarioan funtzionatzen dute, eta honakoak lortzen saiatzen dira, interes orokorreko ekintzen bidez: eskubide sozialen aitortza eta gauzatzea bultzatzea, kohesioa eta inklusio soziala lortzea alderdi guztietan, eta gizarteko talde jakin batzuk ongizatearen behar adinako mailetatik kanpo gera ez daitezen saihestea.	Aurrekoarekiko aldaketarik gabe.	Aurrekoarekiko aldaketarik gabe.
Ikergaiaren mugatze operatiboa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Barne hartzen ditu ekintza sozialeko kooperatibak, gizarte-ekimeneko kooperatiba gisa sailkatuta egon zein ez (hemen sartzen dira "not for profit" motako erakundeak, edo helburu soziala dutenak). ▪ Barne hartzen ditu enplegurako zentro bereziak. ▪ Barne hartzen ditu Espainian ekintza soziala garatzen duten GGKEak. ▪ Ez du barne hartzen aisialdia. ▪ Barne hartzen ditu entitate singularrak (ONCE, Gurutze Gorria eta Caritas). 	Aurrekoarekiko aldaketarik gabe.	Aurrekoarekiko aldaketarik gabe.
Beste ohar batzuk	Lan hauetan berezita ageri dira emaitzak, entitate singularren (Gurutze Gorria, ONCE eta Caritas) datuak barne hartzen diren edo ez diren aintzat hartuta.	Lan hauetan berezita ageri dira emaitzak, entitate singularren (Gurutze Gorria, ONCE eta Caritas) datuak barne hartzen diren edo ez diren aintzat hartuta. Txosten honetako alderaketa egiteko, entitate singularrak barne hartzen ez dituzten emaitzak hartu dira aintzat. Denbora-erreferentzia aldatu egiten da. Landa-lana 2015. urtean egin zen, baina galdera batzuetan 2013ari egiten zaio erreferentzia, modu esplizituan; zehazki, gai hauetan: gobernantza, boluntarioria, enplegua, diru-sarrerak, gastuak eta finantzaketa.	Aurrekoarekiko aldaketarik gabe.

Txosten honen 7 kapitulu tematikoetako bakoitzean, bi taula mota eskaintzen dira:

- Lehenik eta behin, **EAeri** buruzko taula bat ageri da. Orain arte jasotako datu guztiak aurkezten dira bertan (2010, 2014 eta 2019), eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialarekin lotuta eskuragarri dauden azkeneko bi erreferentziak alderatzen dira. Gainera, taula horretan bertan, EAEen eskuragarri dagoen azken datua (2020ko Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko Liburu Zuria – 2019 datuekin) alderatzen da, Kataluniako eta Espainiako Hirugarren Sektorre Sozialari buruz eskuragarri dauden azken datuekin. Hala, honako hau da taularen egitura:

Txostena	Bizkaiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Diagnostikoa	Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko Liburu Zuria			Desberdintasuna 2019-2014	Euskadiren eta Kataluniaren arteko aldea (eskuragarri dagoen azken datua)	Euskadiren eta Espainiaren arteko aldea (eskuragarri dagoen azken datua)
Datuen bilketa-data	2010	2014	2019				


- Bigarrenik, taula osagarri bat eskaintzen da, **Kataluniari** (2015, 2016 eta 2018) **eta Espainiari** (2010, 2015 eta 2019) buruz eskuragarri dauden datuen denborazko segida batekin, eta bakoitzari buruzko azkeneko bi denbora-erreferentzien arteko alderaketarekin. Kataluniaren edo Espainiaren kasuan datu eskuragarri ez duten taulen kasuan, taulan lurralde eremuari dagozkion zutabeak alde batera uztea erabaki dugu.

Txostena	Kataluniako Hirugarren Sektorre Sozialaren Barometroa			Denborazko aldea (eskuragarri dauden azken datuak)	Espainiako Ekintza Sozialako Hirugarren Sektorrearen Urtekaria	Ekintza Sozialako Hirugarren Sektorrearen		Denborazko aldea (eskuragarri dauden azken datuak)
Datuen bilketa-data	2015	2016	2018		2010	2015	2019	

3. HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN ERREALITATEA: ADIERAZLEAK, AZTERGAIAREN ARABERA

Diagnostikoetan eskaintzen diren datu guztien artetik, egungo egoera ikuspegi zabal batetik deskribatzeko –ezaugarri definitzaileekin, jarduera motarekin, eskura dauden baliabideekin, kudeatzeko estrategiekin, harreman-sarearekin lotutako aldagaiak kontuan izanda– eta epe luzeko jarraipena egiteko egokienak eta erabilgarrienak direnak aukeratu ditugu.

Aipatu dugun moduan, adierazleak 7 kapitulutan multzokatuta daude, eta kapitulu horiek bat datoz EAEn egindako erreferentziazko azken ikerketaren aztergaiekin (*Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Liburu Zuria, 2020*).



Datuak hobeto aurkezteko, kapitulu batzuetan hainbat azpipuntutan bereizi ditugu kapitulu horiek, epigrafe jakinen azpian. Honako hauek dira:

NORTASUNA ETA ZIFRA NAGUSIAK

ZIFRA NAGUSIAK: *Zenbat erakunde dira? Zenbat pertsonak lan egiten dute sektorean? Zenbat langile boluntario daude? Zenbatekoa da jarduera ekonomikoaren bolumena?*

Lan bakoitzak honakoei buruz ematen duen estimazioaren emaitza da “zifra nagusiak”: erakunde kopurua, pertsona boluntarioak eta ordainpekoak, eta sektorearen bolumen ekonomikoa. Kalkuluak egiteko, erakundeen lagin adierazgarri baten datuak hartu eta unibertso osora estrapolatzen dira. Sektoreak lurralde eremu bakoitzean duen pisuaren ikuspegi orokora eskaintzen dute datuek, eta sektorearen ekarpen sozioekonomikoari buruzko lehenengo hurbilketa bat egiten dute.

5. taula. Euskadiko HSSren zifra nagusien adierazle nagusien denborazko segida, azken bi datuen arteko aldea eta Katalunia eta Espainiaren arteko aldea.

Txostena	Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialaren Diagnostikoa	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako Liburu Zuria			Desberdintasuna 2019-2014	Euskadiren eta Kataluniaren arteko aldea (eskuragarri dagoen azken datua)	Euskadiren eta Espainiaren arteko aldea (eskuragarri dagoen azken datua)
		2010	2014	2019			
Datuen bilketa-data	2010	2014	2019				
Erakunde kopurua⁶	*	3.500	3.938	+ 438	+ 92	- 24.024	
Erakunde kopurua 1.000 biztanleko⁷	*	1,6	1,8	+ 0,2	+ 0,9	+ 1,21	
Boluntarioak⁸	*	125.203	158.599	+ 33.396	- 208.401	- 602.857	
Ordainpeko langileak⁹	*	35.907	38.525	+ 2.618	- 49.175	- 450.968	
Kudeatutako bolumen ekonomikoaren %, erreferentziako lurraldearen BPGarekiko¹⁰	*	2,2	2,3	+ 0,1	+ 0,88	+ 0,85	

(*) Ez da ematen Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko daturik, *Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialaren Diagnostikoa 2010* txostenak ez duelako ematen erakundeen gutxi gorabeherako unibertsoaren gaineko daturik.

⁶ Alderaketarako erabilitako Kataluniako datua 2021ekoa da (Bartzelonako Eskualdeko Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroaren txostenean aurkeztutako errolda-datuetan jasoa; txosten honetan ez da berariaz aipatzen iturri hori, eskualdeko datuak bakarrik hartzen dituelako aintzat), eta Espainiakoa 2019koa.

⁷ Alderaketarako erabilitako Kataluniako datua 2021ekoa da (Bartzelonako Eskualdeko Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroaren txostenean aurkeztutako errolda-datuetan jasoa; txosten honetan ez da berariaz aipatzen iturri hori, eskualdeko datuak bakarrik hartzen dituelako aintzat), eta Espainiakoa 2019koa.

⁸ Alderaketarako erabilitako Kataluniako datua 2018koa da, eta Espainiakoa 2019koa.

⁹ Alderaketarako erabilitako Kataluniako datua 2018koa da, eta Espainiakoa 2019koa.

¹⁰ Alderaketarako erabilitako Kataluniako datua 2016koa da. Espainiakoa 2018ko txostenekoa da, eta diru-sarrerei egiten die erreferentzia.

6. taula. Kataluniako eta Espainiako HSSko zifra nagusien adierazle nagusien deborazko segida, eta azken bi datuen arteko aldea.

Txostena	Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa			Denborazko aldea (eskuragarri dauden azken datuak)	Espainiako Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorearen Urtekaria			Denborazko aldea (eskuragarri dauden azken datuak)
	2015	2016	2018		2010	2015	2019	
Datuen bilketa-data	2015	2016	2018		2010	2015	2019	
Erakunde kopurua ¹¹	-	3.007	3.846	+3.007	29.746	29.739	27.962	-1.777
Erakunde kopurua 1.000 biztanleko	-	-	0,51	-	0,63	0,63	0,59	-0,04
Boluntarioak ¹²	-	348.450	367.000	+18.550	800.727	983.293	761.456	-221.837
Ordainpeko langileak ¹³	-	85.000	87.700	+2.700	594.413	567.400	489.493	-77.907
Kudeatutako bolumen ekonomikoaren %, erreferentziazko lurraldearen BPGarekiko ¹⁴	-	1,42	-	-	1,88	1,51	1,45	-0,06

¹¹ 2015eko txosteneko Espainiari buruzko datuak 2012ko erakunde kopuruari egiten dio erreferentzia.

¹² Kataluniako 2001eko datua 155.000 boluntariotik gorakoa da. Espainiako datuek ez dituzte barne hartzen entitate singularretako boluntarioak. Espainiako 2015eko txosteneko datuak 2013ko boluntario kopuruari egiten dio erreferentzia.

¹³ Kataluniako 2001eko datua 52.000 ordainpeko langiletik gorakoa da. Espainiako datuek ez dituzte barne hartzen entitate singularretako ordainpeko langileak. Espainiako 2015eko txosteneko datuak 2013ko ordainpeko langileen kopuruari egiten dio erreferentzia.

¹⁴ Kataluniako 2001eko datua BPGaren % 1etik gorakoa da. Espainiako 2015eko txosteneko datuak (2013ko datua) diru-sarreraren bolumenari egiten die erreferentzia.

NORTASUNA ETA BEREZKO EZAUGARRIAK: Zer egiten dute erakundeek? Nolakoak dira? Nondik jokutzen dute?

Sektorearen berezko aniztasunaz eta pluraltasunaz harago, hirugarren sektore sozialeko erakundeek hainbat nortasun-elementu partekatzen dituzte: erakunde formalak dira, irabazi-asmorik gabekoak, gizarte zibiletik sortuak, interes orokorrari zuzenduak eta herritarren parte-hartzearen kanalizatzaileak.

7. taula. Euskadiko HSSren nortasunaren eta berezko ezaugarrien adierazle nagusien denborazko segida, azken bi datuen arteko aldea eta Katalunia eta Espainiarekiko aldea.

Txostena	Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialaren Diagnostikoa	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Diagnostikoa	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Diagnostikoa	Desberdintasuna 2019-2014	Euskadiren eta Kataluniaren arteko aldea (eskuragarri dagoen azken datua)	Euskadiren eta Espainiaren arteko aldea (eskuragarri dagoen azken datua)
Datuen bilketa-data	2010	2014	2019	-	-	-
Pertsona eta familia hartzaileek zuzenean eraturako erakundeek %¹⁵	-	49,3	47,6	-1,7	-	-16,3
Onura publikoaren deklarazioa duten erakundeek %	-	27,0	29,1	+2,1	-	-17,6
Elkarteen %, sektoreko erakundeek guztizkoarekiko	87,6	89,6	89,9	+0,3	+35,7	+22,8
Lurraldean (Euskadin eta lurralde historikoetan) lan egiten duten erakundeek %	-	58,1	63,4	+5,3	-	-
Tokiko mailan (eskualdea, udalerrria edo esparru txikiagokoa) lan egiten duten erakundeek %¹⁶	24,9	26,7	21,1	-5,6	-45,1	-0,8
Bigarren edo hirugarren mailako erakundeek (sareak) kopurua	-	85,0	87,0	+2,0	-	+37,2
Batez ere boluntarioz osaturako (langileen % 50 edo gehiago) erakundeek %	80,8	87,0	87,9	+0,9	-	+37,2
Sektoreko erakundeek esku artean ibilitako bolumen ekonomikoa (milioi euro)¹⁷	-	1451,0	1736,0	+285,0	-1317,0	-14847,3
Oso-osorik boluntarioz osaturako erakundeek %¹⁸	45,2	46	42,8	-3,2	-	+28,9
1 milioi eta erdi euro baino gehiago kudeatzen dituzten erakundeek %	10,5	9,0	7,6	-1,4	+3,5	-6,3
12.000 euro edo gutxiago kudeatzen dituzten erakundeek %¹⁹	31,1	32	31,7	-0,3	-8,6	+0,60
Autonomia-erkidegoaren esparrua gaintzen duten (estatukoa edo nazioartekoa) erakundeek %²⁰	32,9	15,2	15,5	+0,3	+8,1	-13,7
Hiriburu-eremuko batean kokaturako erakundeek %²¹	-	54,6	54,2	-0,4	+20,4	-

¹⁵ Zuzenean herritarren ekimenez sortutako erakundeek egiten diete erreferentzia Espainiako datuek (eta ez beste erakunde batzuek sustatutakoei).

¹⁶ Kataluniako 2016ko datuak jarduera eremua gehienbat tokioa duten erakundeek egiten die erreferentzia. Espainiako 2015eko eta 2019ko datuak tokiko mailan bakarrik lan egiten duten erakundeek egiten die erreferentzia.

¹⁷ Espainiako datuek erakundeek diru-sarreraren bolumenari egiten diote erreferentzia. Espainiako 2015eko txosteneko datua 2013koa da. 2019ko daturik berriena 2018koa da.

¹⁸ Alderaketarako erabilitako Espainiako datua 2010ekoa da.

¹⁹ Alderaketarako erabilitako Kataluniako datua 2015ekoa da, eta 0 eta 50.000 € artean kudeatzen dituzten erakundeek egiten die erreferentzia. Espainiako 2009koa da, eta 30.000 € edo gutxiago kudeatzen dituzten erakundeek egiten die erreferentzia.

²⁰ Alderaketarako erabilitako Kataluniako datua 2016koa da, eta Estatu mailako erakundeek egiten die erreferentzia; Espainiako 2019koa da.

²¹ Alderaketarako erabilitako Kataluniako datua 2016koa da.

8. taula. Kataluniako eta Espainiako HSSren nortasunaren eta berezko ezaugarrien adierazle nagusien deborazko segida, eta azken bi datuen arteko aldea.

Txostena	Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa			Deborazko aldea (eskuragarri dauden azken datuak)	Espainiako Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorearen Urtekaria			Deborazko aldea (eskuragarri dauden azken datuak)
	2015	2016	2018		2010	2015	2019	
Datuen bilketa-data								
Pertsona eta familia hartzaileek zuzenean eraturako erakundeen % ²²	-	-	-	-	56,6	57,2	63,9	+6,7
Onura publikoaren deklarazioa duten erakundeen %	-	-	-	-	46,7	-	-	+10,9
Elkarteen %, sektoreko erakundeek guztizkoarekiko	-	65,0	54,2	-10,8	67,1	-	-	-2,6
Lurraldean (Euskadin eta lurralde historikoetan) lan egiten duten erakundeen %	-	-	-	-	-	-	-	-
Tokiko mailan (eskualdea, udalerrria edo esparru txikiagokoa) lan egiten duten erakundeen % ²³	-	66,2	-	-	21,8	16,8	21,9	+5,1
Bigarren edo hirugarren mailako erakundeek (sareak) kopurua	-	-	-	-	-	-	-	-
Batez ere boluntarioz osatutako (langileen % 50 edo gehiago) erakundeek %	-	-	-	-	50,7	-	-	-19,0
Sektoreko erakundeek esku artean ibilitako bolumen ekonomikoa (milioi euro) ²⁴	-	3053,0	-	-	17.467,5	14.470,8	16.583,3	+2.112,5
Oso-osorik boluntarioz osatutako erakundeek %	-	-	-	-	13,9	-	-	-10,6
1 milioi eta erdi euro baino gehiago kudeatzen dituzten erakundeek %	4,6	4,1	-	+0,5	13,9	-	-	-3,1
12.000 euro edo gutxiago kudeatzen dituzten erakundeek % ²⁵	42,9	40,3	-	-2,6	31,1	-	-	+6,1
Autonomia-erkidegoaren esparrua gainditzen duten (estatukoa edo nazioartekoa) erakundeek % ²⁶	-	7,4	-	-	15,6	21,5	29,2	+7,7
Hiriburuetakoa batean kokatutako erakundeek % ²⁷	-	33,8	-	-	-	-	-	-

²² Zuzenean herritarren ekimenez sortutako erakundeek egiten diete erreferentzia Espainiako datuek (eta ez beste erakunde batzuek sustatutakoei).

²³ Kataluniako 2016ko datuak jarduera eremua gehienbat tokikoa duten erakundeek egiten die erreferentzia. Espainiako 2015eko eta 2019ko datuak tokiko mailan bakarrik lan egiten duten erakundeek egiten die erreferentzia.

²⁴ Espainiako datuek erakundeek diru-sarreraren bolumenari egiten diete erreferentzia. Espainiako 2015eko txosteneko datua 2013koa da. 2019ko daturik berriena 2018koa da.

²⁵ Kataluniako 2015eko eta 2016ko datuak 0 eta 50.000 € artean kudeatzen dituzten erakundeek egiten diete erreferentzia. Espainiako datuek 30.000 € edo gutxiago kudeatzen dituzten erakundeek egiten diete erreferentzia.

²⁶ Kataluniako 2016ko datuak Estatu mailako erakundeek egiten die erreferentzia.

²⁷ Kataluniako datuak Bartzelona hirian kokatuta dauden erakundeek egiten die erreferentzia.

JARDUERA

Zer egiten dute erakundeek? Zer ibilbide dute? Zer zerbitzu ematen dituzte?

Hainbat eratako pertsonen, familiei eta kolektiboari arreta emateko lan egiten dute hirugarren sektore sozialeko erakundeek, hainbat jarduera arlotatik. Askotariko ibilbideak dituzten erakundeak dira eta, haien zereginen baitan, zerbitzuak ematen dituzte eta eragin sozialarekin lotutako beste funtzio sozial batzuk ere gauzatzen dituzte.

9. taula. Euskadiko HSSren jardueraren adierazle nagusien denborazko segida, azken bi datuen arteko aldea eta Katalunia eta Espainiarekiko aldea.

Txostena	Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialaren Diagnostikoa	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialerako Liburu Zuria	Desberdintasuna 2019-2014	Euskadiren eta Kataluniaren arteko aldea (eskuragarri dagoen azken datua)	Euskadiren eta Espainiaren arteko aldea (eskuragarri dagoen azken datua)
Datuen bilketa-data	2010	2014	2019		
Arlo sozial-transbertsaleko (edo zibikoko) erakundeen %	-	33,7	36,5	+2,8	-
Gizarte-zerbitzuen arloko erakundeen %²⁸	42,1	25,3	23,3	-2,0	-13,7
Jarduera emakumeei (neurri batean gutxienez) zuzentzen dieten erakundeen %²⁹	-	47,6	49,3	+1,7	+34,9
Aisialdiko zerbitzuak ematen dituzten erakundeen %	-	55,0	62,2	+7,2	+44,7
Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen %³⁰	-	93,0	86,0	-8,0	+32,7
Zerbitzuak ematea ez den beste jardueraren batzuk (beste funtzio sozial batzuk) egiten dituzten erakundeen %³¹	62,9	75,1	92,5	+17,4	+45,6
Salaketa-jarduerak egiten dituzten erakundeen %³²	-	45,0	57,9	+12,9	+27,6
Ibilbide zabaleko (20 urte baino gehiagokoa) erakundeen %³³	26,8	42,1	34,0	-8,0	-9,7
Erakunde gazteen (5 urte baino gutxiagoko ibilbidea) %³⁴	20,5	13,4	20,0	+6,6	-36,5

²⁸ Espainiako datuek ekintza sozialeko erakundeei egiten diete erreferentzia.

²⁹ Alderaketarako erabilitako Espainiako datua 2019koa da, eta batez ere emakumeei zuzendutako ekintzak garatzen dituzten erakundeei egiten die erreferentzia.

³⁰ Alderaketarako erabilitako Espainiako datua 2019koa da, eta zuzeneko esku-hartzea egiten duten erakundeei egiten die erreferentzia.

³¹ Alderaketarako erabilitako Espainiako datua 2015ekoa da, eta jarduera nagusi gisa zeharkako jarduerak eta beste jarduera batzuk egiten dituzten erakundeei egiten die erreferentzia.

³² Alderaketarako erabilitako Espainiako datua 2015ekoa da, eta eskubideekin lotutako sustapen-lana edo salaketa-lana egiten duten erakundeei egiten die erreferentzia.

³³ Alderaketarako erabilitako Espainiako datua 2019koa.

³⁴ Alderaketarako erabilitako Espainiako datua 2019koa da, eta 18 urte baino gutxiago dituztenei egiten die erreferentzia.

10. taula. Kataluniako eta Espainiako HSSren jardueraren adierazle nagusien deborazko segida, eta azken bi datuen arteko aldea.

Txostena	Espainiako Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorearen Urtekaria		Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorea		Denborazko aldea (eskuragarri dauden azken datuak)
	2010	2015	2019		
Datuen bilketa-data	2010	2015	2019		
Arlo sozial-transbertsaleko (edo zibikoko) erakundeen %	-	-	-		-
Gizarte-zerbitzuen arloko erakundeen % ³⁵	38,6	34,7	37		+2,3
Jarduera emakumeei (neurri batean gutxienez) zuzentzen dieten erakundeen % ³⁶	11,9	9,3	14,4		+5,10
Aisialdiko zerbitzuak ematen dituzten erakundeen %	-	-	17,5		-
Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen % ³⁷	54,9	53,1	-		+10,8
Zerbitzuak ematea ez den beste jardueraren batzuk (beste funtzio sozial batzuk) egiten dituzten erakundeen % ³⁸	45,1	46,9	-		-10,8
Salaketa-jarduerak egiten dituzten erakundeen % ³⁹	5,6	7,5	30,3		+22,8
Ibilbide zabaleko (20 urte baino gehiagokoa) erakundeen % ⁴⁰	48,3	60	43,5		-16,5
Erakunde gazteen (5 urte baino gutxiagoko ibilbidea) % ⁴¹	19,7	17,8	56,5		+38,7

Kanpoan utzi dira Kataluniako datuak, datu batzuk ez zeudelako eskuragarri

³⁵ Espainiako datuek ekintza sozialeko erakundeei egiten diete erreferentzia.

³⁶ Batez ere emakumeei zuzendutako ekintzak garatzen dituzten erakundeei egiten diete erreferentzia Espainiako datuek.

³⁷ Espainiako datuek zuzeneko esku-hartzea egiten duten erakundeei egiten diete erreferentzia.

³⁸ Jarduera nagusi gisa zeharkako jarduerak eta beste jarduera batzuk egiten dituzten erakundeei egiten diete erreferentzia Espainiako datuek.

³⁹ Espainiako 2010eko datuak jarduera nagusi gisa salaketa egiten duten erakundeei egiten die erreferentzia, eta 2015eko eta 2019ko datuek eskubideen sustapena/salaketa egiten duten erakundeei.

⁴⁰ Espainiako 2019ko datuak 2000. urtearen aurreko erakundeei egiten die erreferentzia.

⁴¹ Espainiako 2008ko eta 2010eko datuek 10 urte baino gutxiago dituzten erakundeei egiten diete erreferentzia; 2015eko txosteneko datua 2013koa da, eta 15 urte baino gutxiago dituzten erakundeei egiten die erreferentzia. Espainiako 2019ko datuak 20 baino gutxiagoko erakundeei egiten die erreferentzia.

PERTSONAK

Nork parte hartzen du erakundeetan eta nork eusten dio proiektuari? Zer egoeratan daude erakundeari lotutako pertsonak?

